

4E/2023 EBAZPENA, urtarrilaren 13koa, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailearena, zeinaren bidez Nafarroako toki entitateek deitzen dituzten egonkortze prozedurei lotuta euskararen ezagutza egiaztatzeko maila probetarako deialdian onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratzen da eta proben hasiera data ezartzen den.

ERREFERENTZIA: **Espedientearen kodea: 0000-RES1-2022-000909**

KUDEAKETA UNITATEA: Herritarrekiko Harremanetarako Departamentua
Euskara Administrazio Publikoetan Garatzeko Zerbitzua
Euskararen Prestakuntzen eta Egiaztapenen Atala
Tel.:848 426053
Helbidea: Paulino Caballero kalea, 13, 31002 Iruña
Helbide elektronikoa: euskarabidea@navarra.es

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailearen urriaren 4ko 51E/2022 Ebazpenak Nafarroako toki entitateek deitzen dituzten egonkortze prozedurei lotutako euskararen ezagutza egiaztatzeko maila proben deialdia onartu zuen.

Izena emateko epea irekita egon da navarra.es atarian prestatutako tramitearen fitxaren bidez, 30 egun naturalez. Ondoren, 7 egun naturaleko epea egon da akatsak zuzentzeko. Hori dela eta, onartutako (I. eranskina) eta baztertutako (II. eranskina) pertsonen behin betiko zerrenda argitaratu da, baztertzeko arrazoiak azalduz. Halaber, probak 2023ko otsailaren 10ean hasiko dira, 51E/2022 Ebazpenean ezarritakoari jarraituz.

Horregatik, eta Herritarrekiko Harremanetarako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko 271/2019 FORU DEKRETUAK emandako ahalmenen arabera, honako hau

EBATZI DUT:

1. I. eta II. eranskinetako onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratzea, baztertzeko arrazoiak azalduz.
2. Probak hasteko eguna 2023ko otsailaren 10a izatea.
3. Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Nafarroako Gobernuari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik hasita.

Iruña, 2023ko urtarrilaren 13a

EUSKARABIDEA-EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI GERENTEA
MIKEL ARREGI PÉREZ

